




## Batez beste, 3.000 lagunek erabiltzen dute egunero Usabal

**TOLOSA** ▶ Beroari aurre egiteko, kirol eta aisialdi guneko kanpoko igerilekua aukeratzen dute gehienek

**BAZKIDEAK** ▶ 6.500 bazkide inguru ditu Usabalek; jarritako 5.000 laguneko helburua gainditu du ▶ 2,3



Udan erabiltzaile gehienek hautatzen dituzte kanpoko igerilekuak; ume asko joaten da. N. LATABURU



I. TERRADILLOS

## Bide onetik doa 'Sua' filmaren grabaketa

**IBARRA** ▶ Segurako Erdi Aroko jaia baliatu du Eneko Aritzaren Lagunak Filmagintza elkarteak bere proiektuarekin jarraitzeko ▶ 6

**AMEZKETA** ▶

**LEITZA** ▶

**Bergako  
lasterketan  
laugarren  
egin du Iker  
Karrerak**

Hirugarren jarri du sailkapen nagusian Espainiako Txapelketako 3. probako emaitzak ▶ 5

**Nafarroako  
triatlo  
selekzioan,  
ordezkari  
leitzar bat**

Julen Sagastibeltza izan da kadete mailako ordezkari bakarra Espainiako Txapelketan ▶ 7

**ARESO** ▶

## Irakasle bat gutxiago izanen dute eskolan datorren ikasturtean

Hala baieztatu die eskolakoei Nafarroako Gobernuak, eskutitzez ▶ 7

GIZARTEA ▶

# Udako beroa asetzeko

Usabal kirol eta aisiguneak batez besteko 3.000 lagunren bisita jasotzen du egunero; Tolosakoek nahiz eskualdeko herritarrek «kanpoko igerilekua» aukeratzen dute beroari aurre egiteko

E. EZEIZA - N. LATABURU

«Jasangaitza da; a zer beroa!; ezin dut gehiago; ez al du freskatu behar?». Azken egunotako bero sargoria guztion ahotan izan da. Guztiok pairatu dugu bere eragina baina batzuk Usabalgo kirol eta aisiguneak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu dituzte egoera jasangarriagoa egiteko. Uretan ere ez da oso erraza izan askorentzat beroari aurre egitea, baina kanpoko bi igerilekuak jendez gainezka izan dira. Azken egunotan deigarriagoa izan bada ere, uda hasi zenetik egunero-egunero «jende mordea» hurbildu da instalakuntzetara. Hala, haurtxoak, gazte-

ak bai eta helduagoak ere bete dute Usabal. Arduradunek adierazi dutenez, 3.000 lagun inguru izan da batez beste. «Gehienak bazkideak dira, baina sarrera ordaintzen duenik ere bada».

Erabiltzaileak, oro har, «pozik» azaltzen dira azpiegiturakin, «hainbeste pertsonen artean kezarik jasotzea ohikoa den arren». Kanpoaldean bi igerileku daude, bata helduentzat eta, bigarrena, txikientzat. Belazea ere dago hamaka batzuekin, eguzkia hartu nahi dutenentzat. «Eguzkitako berri batzuk ere jarri ditugu belazan eguzkitik babesteko», azaldu du Arantxa Sanchez langileak. Eskailera batzuk igota,

gainera, solarium-a ezarri dute. Hala eta guztiz ere, jendetza hartzeko «txikiegia» zela eta alboan duen futbol zelaia atondu dute egunotan igerilekuan daudenean bertan eguzkia hartzeko aukera izan dezaten.

## Ikastaroak, aurrera

Bazkide txartela ez dutenentzat, sarrera 6,4 eurokoa da helduen kasuan, 4,8 gazteenentzat eta 3,2 umeentzat. Behin behineko txartelak egiteko aukera ere eskaintzen dute, 15 egunetarako. Abonatuak, aldiz, eskubidea dute instalazioko areto eta zerbitzu guztiak erabiltzeko.

Hala ere, udan bisitari gehienak igerilekura joaten diren arren, bada kirola egitera joaten denik ere. Izan ere, Usabalgo arduradunak makina bat ikastaro antolatuta dituzte hiru hilabete hauetarako. Helduek nahi gazteek egun guztian zehar dituzte kirol jarduerak.

Helduen kasuan, aquagym-a, aerobika, pilates-a, mantenu gimnastika, yoga, igeriketa cycling-a, padela, urpekaritza, piraguismoa eta hipika eskaini dute. «Guztien artean eskatue-na igeriketa izaten da udan eta, noski, ohiko jarduerak arrakasta izaten dute».

Haurren artean, aldiz, aerobik batuka da «eskaera gehien» jasotzen dituen, San-

chez jakitera eman duenaren arabera. Halaber, «mutil koskorek futbol stage-a dute gustuko eta jarrarritzaile asko ditu». Bi astez egunero aritzen dira honetan. Haatik, kirol berri honen zale ez direnentzat bestelako ekitaldiak dituzte; besteak beste, cycling-a, igeriketa, urpekaritza eta tenisa.

«Oraindik urtebete ez du egin eta balorazioak ez ditugu egin, baina hobetzeko gauzak beti izaten dira». Hondartza ez baina, beraz, Tolosak badu, aurtengo udatik aurrera, egunotako beroari aurre egiteko irtenbidea. Kexak kexa eta oztopoak oztopo, milaka lagunek hautatu dute Tolosako igerilekua aisigune gisa.



Gazteenentzat txirristak jolasgarriak izaten dira . N. LATABURU



Usabalgo kanpoko bi igerilekuak beteta izaten dira; adin guztietako jendea biltzen da, sorosleen begiradapean. N. LATABURU

## EUSKAL JAIA

### BILLABONA 2006

## ZIKIRO JATEA

Uztailak 29  
Larunbata

*Itsaskabra budina salsa arrosarekin*

*Nafarroako zainzuriak ozpin-olio saltsa bereziarekin*

*Pikillo piperrak bakailaoz beteta pikillozko saltsarekin*

**ZIKIROA** letxuga eta tipula entsaladarekin

*Mokazko tarta jogurt-krema eta bainilazko izozkiarekin*

*Kafea eta Kopa*

Menua: 20 €

Txartelak salgai:

- Amasa okindegia - Kixubi okindegia - Larrea okindegia - Labezain okindegia - Ogi Goxo okindegia - Shepherds garagardotegia - Iturrigoxo jatetxea - Garmendia Harategia - Arnasa - Iru-Aldeta - Maxola - Joe-Itzalpe

**Oharra:**

Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 23a izango da.



**ARANTXA SANCHEZ** ▶ USABAL KIROLDEGIKO HARRERAGILEA

## «Neguak eta udak ez dute zerikusirik, orain ia jende guztia igerilekuetara etortzen da»

Eguraldi bero hauek aprobetxatuz, jende ugari hurbildu da egun hauetan Usabal kiroldegira. Hori dela eta, HITZAK bertan harreragile lanetan aritzen den Arantxa Sanchezekin hitz egin du. Orain Usabal kirol eta aisigunean lana egiten badu ere, lehen Igarondoko igerilekuetan jarduten zuen.

**Jende asko al dabil igerileku eta kanpoko instalakuntzetan?**

Bai, batez ere egun hauetan, eta eguraldi honekin, jende asko animatzen da igerilekura etortzera. Bestalde, futbol zelaia ere ireki dugu, eta jendea bertan egoten da eguzkia hartzen.

**Zenbat lagunek bisitatzen du**

**egunero batez beste Usabalgo kiroldegia?**

Ez dakit ziur, baina atzoko datuak begiratu ezker, 3.200 pertsona inguru etorri zirela ikus dezakegu. Eta normalean, gutxi gorabehera, horrelakorenbat izaten da.

**Orain, udan, nagusiki zertara etortzen da jendea?**

Jende gehiena igerilekuetara etortzen da; hala ere, orain ere, badago gimnasia etortzen den jendea.

**Zein ikastaro dute arrakasta gehien?**

Orain, gehienbat, urarekin lotura duten ikastaroetan ematen du izena jendeak. Adibidez, helduetan, igeriketak; eta haurretan, aerobik-batukak

dute arrakasta. Bestalde, beti bezala, futboleko eskoletan ere gaztetxo asko ibiltzen dira. **Zenbat bazkide lortu ditu Usabal kiroldegiak?**

6.500 bazkide inguru ditu oraingoz.

**Beraz, helburuak bete dira?**

Bai, hasiera batean 5.000 lagun inguru biltzea espero zen, baina dezente gehiago lortu dira. Uste baino hobeto ateratu dira gauzak.

**Jendea gustura al dago instalakuntzekin?**

Bai, orokorrean, nik uste baietz. Egunero ibiltzen den jende kopurua kontuan hartuta, oso kexa gutxi jaso ditugu.

**Zer nolako jendea dabil?**

Denetik, baina orain, igerile-

kura-eta, batik bat umeak etortzen dira.

**Tolosa bertako jendea, edo eskualdekoa dabil gehiago?**

Tolosakoa asko badabil ere, kanpotik jende asko etortzen da, batik bat, Villabona aldetik eta.

**Etortzen den jendea, bazkide al da?**

Gehienak bai, batik bat bazkideak etortzen dira, baina bestelakoa ere etortzen da.

**Desberdintasun handia al dago negutik hona?**

Bai, ez dauka zerikusirik, erabat aldatzen da. Neguan jende gehiena gimnasia etortzen da, eta orain, berriz, igerilekuetara. Bestalde, ume gehiago etortzen da data hauetan.



E. EZEIZA

**Desberdintasun handia narit al duzu Igarondotik hona?**

Bai, henen askoz ere jende gehiago ibiltzen da. ◀



Etxeko txikiak igerian ikasten dute ikastaroetan. E. EZEIZA



Hamaka leku aproposa da eguzkia hartu nagan dutenentzat. E. EZEIZA

ADUNA ▶ GIZARTEA

# Saharar baten uda gure artean

Beatriz Eguzkiza eta bere alaba Sararen etxean dago Fatimetu Bachir

IMANOL GARCIA

**F**atimetu Bachir sahararrik 10 urte ditu, baina adina galdetzean «11 egingo ditut aurten» erantzuten du. Laugarren urtea da uda gure artean pasatzera datorrela, horietatik hiru Adunan, Beatriz Eguzkiza eta bere alaba Sararen etxean. Fatimetu Bachir baino urtebete zaharragoa da Sara, eta aurten aldaketa batzuk ikusi ditu udako ahizparengan: «Galtza motzak ezin dituela jantzi dio». Eta amak gaineratu du: «Dirudienez, haren amak esan dio bere adinarenatik ezin dituela dagoeneko gauza batzuk egin».

Tolosaldera hamabost haur saharar etorri dira oporrak igarotzera. «Bero handia egiten du han», dio Bachirrek gaztela-

raz. Lau udatan soilik egon da, baina ondo moldatzen da hizkuntza horretan. Beste edozein haur bezala pasatzen du uda hemen: jolasten, hondartzara joaten, igerilekura... «Gustura» egoten dela dio. Hala ere, lehen egunak ez zaizkio errazak egiten: «Hemen nagoenean hangoak gogoratzen ditut, eta Saharar nagoenean hemengoak».

Eguzkiza oso gustura dago Bachir bere etxean hartzeaz: «Jakin nuen Saharako haurrak uda pasatzera etortzen zirela, eta harremanetan jarri nintzen elkartearekin. Oso esperientzia polita da eta Sararentzat aberasgarria dela iruditzen zait». Bi nerabeek beraien artean ondo eramaten direla ikusten da, aurten «Fatimetuk Sara esnatzen badu ere». «Goizetan



Goian eta ezkerretik, Sara eta Fatimetu Bachir; azpian, ezkerretik, Maixel Tolosa eta Beatriz Eguzkiza. I. GARCIA

erreztzeko jaikitzen da», dio adunarrak. Bost aldiz egiten du otoitz sahararrak, adinez aurrera egitearen beste ondorio-etako bat.

Sahararik etortzen diren haurrentzat kontraste handia da udan hona oporretan etortzea. Ez, bereziki, Bachirrentzat. «Hemen ditugun gauzek ez dute hainbeste harritzen», dio Eguzkizak. Agian, Bachir kanpamenduetatik at bizi izan delako ere izango da, desertu-

ko bizi baldintza gogorretik kanpo. Hala ere, neguan izandako eurijesak bertan harripatu zuen, eta bere etxea hondatu eta gero amonarengana jo behar izan zuten ostatu bila. «Ez genekien zer zen euria. Pentsatzen genuen euri pixka bat besterik ez zela izango, baina gero dena ibai handi bat bihurtu zen». Aste hauetan, behintzat, ikusten duen ibaia bere bidetik ateratzen ez den Oria izenekoa da.

## Egun-pasa haurrentzat

Gipuzkoa osotik 50 haur sahararretik gora espero dituzte etzi Adunan. Azken urteetan bezala, Sahararik oporretan etorritako haurrei egun berezia antolatu diete. Bederatzi urte inguru daramatzate festa hau egiten, antolakuntzan parte hartzen duen Maixel Tolosak gogoratzen duenez. «Santa Ageda bezperan eskean bildutako diruarekin eta inguruko biltegi eta supermerkatuetan lortutakoarekin egiten dugu festa», dio. Prestaketa lanetan lauzpabost guraso aritzen badira ere, egunean bertan beste dozena erdi bat ere animatzen dira laguntzera. «Eskatzea nahiko da laguntza josotzeko», azaltzen du Tolosak.

Ekitaldeak dagokienez, ongi-gietorria 11:30ak aldera egingo diete. Ondoren, trial-sin erakustaldia izango da. Hori ikusi eta gero Gorritiren animalien ikuskizuna izango dute bazkaldu aurretik. Bazkariaren jarraian haurren arteko jolasak antolatu dituzte. Egun-pasa amaitzeko, txokolatada egingo dute. ◀

ADUNA ▶ PILOTA

## III. Transernio Txapelketa bihar hasiko da eta, ohiturari jarriki, herriko festetan izango dira finalak

Eskualdeko zein kanpoko 35 pilotari ariko dira benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan

ERREDAKZIOA

Pilotaren ikuskizuna berriro bueltatuko da Adunara. III. Transernio Txapelketa jokatzen hasiko dira bihar herriko pilotalekuan. Lau mailatan

izango da txapelketa: benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak. Eskualdeko zein Gipuzkoako osoko 35 pilotari ariko dira lehian.

Final-laurdenak jokatuko dira asteburu honetan. Bihar

18:30ean hasiko dira partidak eta igandean 11:30ean izango dira. Hurrengo asteburuan beste final-laurdenak jokoan: hilaren 28an, 18:30ean, eta hilaren 30ean, 11:30ean, jokatuko dira. Finalerdiak, berriaz, abuztuaren 4an (18:30ean) eta 6an (11:30ean) izango dira.

Txapelketa honetako beste edizioetan bezala, Adunako jaien baitan jokatuko dute finala. Aurtengoan abuztuaren 12an izango da, larunbata, eta 16:00etan hasiko dira pilota partidak.



Txapelketako iazko irudia. I. GARCIA

iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Txakurkumeak.** Txakurkumeak salgai. Euskal artzai arrazakoak. Prezio oso onean. Oso politak. 636 17 16 24.

### LANA

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuek deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira. **Zerbitzaria.** Zerbitzaria

behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuek deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira. **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adinekoa zaintzeko. Deitu 635 75 67 89 zenbakira.

### BESTELAKOAK

**Txakurkumeak.** Artzai txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete batekoak. Arrak eta emeak. 948 50 44 81.

### ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

ANOETA ▶

## 'Anoetako baserriak' salgai, 25 eurotan

Anoetako Udalak jakitera eman duenez, San Isidro egunean aurkeztu zuten *Anoetako Baserriak* liburua salgai dago herriko Kuku-Lore liburudendan. Liburuak 25 euroko kostua du.

VILLABONA ▶

## Igandera arte Euskal Jaiarako txartelak salgai

Villabonako jaietan, hilaren 29an egingo den Euskal Jaiko zikiri jatean parte hartu nahi dutenek 20 euro balio duen txartela eros dezakete leku hauetan: Amasa okindegia, Kixubi okindegia, Larrea okindegia, Labezain okindegia, Ogi Goxo okindegia, Shepherd's garagardotegia, Iturrigo jatetxea, Garmendia harategia, Arnasa, Iru-Aldeta, Maxola, Joe eta Itzalpe. Igandean amaituko da epea.

AMEZKETA ▶ MENDI LASTERKETA

# Iker Karrera: «Ez nuen Bergan laugarren postua egitea espero»

Espainiako Txapelketako hirugarren proban lortutakoak sailkapen nagusian hiru onenen artean kokatu du



Iker Karrera mendi lasterkaria Espainiako Txapelketan hiru indartsuenen artean dabil. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Bergan (Katalunia) izan zen Iker Karrera amezketarra, maratokia egiten. Espainiako Txapelketako hirugarren proba izan zen igandean, eta «espero ez nuen laugarren postua» lortu zuen.

Bi ordu eta 23 minutu behar izan zituen Bergako herritik, besteen artean, Pico de Pedrorra igotzeko, eta berriz ere jais-teko. 24 kilometro egin zituen orotara, eta bere aurretik, 3 minutu lehenago, beste euskaldun bat igaro zen: Fernando Etxegarai beratarra. «Oso indartsu dabil Fernando: Izaban egindako Euskadiko Txapelketako txapelduna izan da aurt-en, eta euskal selekzioan egin duen lehenengo lasterketa Bergakoa izan da. Oso indartsu dabil», azaldu du Iker Karre-rak.

Sailkapen nagusian ere au-rrean dabil amezketarra: 3. dago, 124 punturekin, Raul Garcia —Tierra Tragame tal-dea— eta Tofol Castanyerren atzetik —AE Mountain Run-ners del Bergueda—. «Zaila izango da postu honi eustea, hurrengo bi probak ikusita».

Espainiako Txapelketak bes-te bi proba izango ditu: Palen-tzian irailaren 10ean, eta urrian Sabiñanigon.

SAILKAPENA ▶

BERGAKO PROBA

Izena	Denbora
1. Tofol Castanyer	2.13.45
2. Raul Garcia	2.16.48
3. Fernando Etxegarai	2.20.43
4. Iker Karrera	2.23.35
5. Fernando Navarro	2.25.36

SAILKAPEN NAGUSIA

Izena	Puntuak
1. Raul Garcia	145
2. Tofol Castanyer	141
3. Iker Karrera	124

Bestalde, Euskadiko Sele-kzioarekin doazen emakumeen artean, Oihana Azkorbebeitia sailkapen nagusian 4. lekuan dago, 124 punturekin. Bergako proban 6. egin zuen, eta 10. beste euskaldun batek: Marta Romerok.

Lasterketa eroso

«Hasieratik oso oso indartsu hasi zen probako irabazlea, To-fol Castanyer katalandarra».

Orotara, 24 kilometro egin zi-tuzten. Iker Karrera eta Fer-nando Etxegarai elkarrekin igo zuten mendia; jaitzieran, ordea, bereiztu egin ziren pix-ka bat; «izan ere, Fernando ho-beto jaisten da ni baino. Egia esan, igoeran oso gustura egin

nuen korrika Fernandorekin». 700 metrora dagoen herritik 2.000 metroetara igo ziren las-terkariak, 08:00etan hasitako proban.

Beroa egin bazuen ere, 10:30ak aldera proba bukatze-arekin ez zuen gehiegi berotu ere. «Gainera, hezetasuna ere bazegoen, eta guk baino hego-aldekoek sufritu zuten gehia-go. Hori nabaritu zuten».

Palentziako proba buruan

Espainiako Txapelketako lau-garren proba Palentzian egingo dute hurrengo irailaren 10ean, eta maratokia izango da: *Alpino del Fraile* deitzen zaio hangoari. «Hasiera batean, de-netan gogorrena da. Printzi-pioz Alacanten egindakoa bai-no gogorragoa da: 6.000 me-troko gorabeherak daude, besteak beste».

Iker Karrera abuztuan zeh-ar ez dauka probarik, iraila-ren 10ean Palentziakoa egin arte. Dena dela, «prestatzeko denbora askoren beharra izan-go dut, ez baita erraza izango sailkapen nagusian 3. buka-tzea. Hori lortzen badut, espero nuena baino gehiago egingo nuke. Zaila izango da». Beraz, atsedean hartu eta iraila arte amezketarra ez da izango pro-ba garrantzitsuetan.

AMEZKETA ▶ PILOTA



Txapelketa honetan pilotari onenentariokoak ibiliko dira. IMANOL GARCIA

## Joxean Tolosa Pilota Txapelketako emaitzak

Pasa den asteburuan jokaturako partidetan orokorrean emaitza parekatuak izan dira

N. URBIZU

Amezketako pilotalekuan jo-katzen ari den XVII. Joxean To-losa Pilota Txapelketako emai-tzak hauek izan dira asteburu honetan. Lehenengo ostiralean gauean izan ziren lehenengo-ak. Kadeteek, gazteek eta na-gusiek jokatu zuten.

Lehenengo partidari Esnao-la eta Jaunarena aritu ziren, 18-6 bukatuz. Ondorengoan, Berroeta eta Artola izan ziren, eta 8 eta 18 bukatu zen nor-gehiagoka. Hurrengo lehian Uzkudunek irabazi zuen Gala-rragaren aurka, 11 tanto egin ostean.

Larunbatekoak

Larunbateko arratsaldekoetan Lertxundi eta Sukia aritu ziren lehenik, 18-14 geratuz.

Gazteetan, Gerrero eta Azku-neren artekoan lehenak ira-bazi zuen aurkariak 10 tanto egin zituelarik.

Nagusien bi partida izan zi-ren. Agirre Ugartemendiari gailendu egin zitzaion 18-9ko emaitza izanik. Mendiluze eta San Sebastianen artekoan, al-diz, 18 eta 8 izan zen bukae-ran.

Gaueko hiru partidetan, Pe-rez eta Gaztañaga kadeteek 11 eta 18 amaitu zuten nor-gehiagoka.

Bigarren partidari argi asko irabazi zuen Goikoetxeak, Martinezek 2 tanto besterik ez baitzituen egin.

Nagusien artekoan, azke-nik, Esnaola eta Otxotorena aritu ziren. Esnaolak 12 tanto egin ahal izan zituen. Beraz, garaipena Otxotorenarentzat izan zen.

PILOTA ▶

## Aurrera-Saiaz pilota eskolakoek denboraldi gaur

Denboraldi amaierako festa egingo dute Aurrera-Saiaze-ko pilotari guztiek. Horretar-ako, bihar bilduko dira Beo-tibar pilotalekura, 19:30etik aurrera. Ondoren, Aburuza sagardotegian afaltzera jo-ango dira. Txapelketa asko-tan hartu dute parte pilotari hauek, eta besteen artean, profesionaletan debutatu dute pilota eskola honetako batzuek; esaterako, Jabi Ote-l-za zarautzarrak.

TOLOSA ▶

## Paletako final-laurdenak jokoan, gaur eta bihar

XXXVIII. Tolosa CFko binaka-ko Paleta Txapelketako final-laurdenak jokatuko dituzte gaur eta bihar. Berazubiko pilotalekuan izango dira par-tidak, 19:00etatik aurrera. Aste honetan zehar jokatu-tako partidetan finalerdietara pasatuko diren paleta jokala-riak zeintzuk diren erabaki-ko dute. Final handia hilaren 29an jokatuko dute, eta dena bukatzean afarian elkartzeko dira, festa giroan.

IBARRA ▶ KULTURA

# Grabaketa bor-bor

Segurako Erdi Aroko jaia baliatu du Eneko Aritzaren elkarteak 'Sua' filmatzeko



Erdi Aroko jaia ederki etorri zitzaion Eneko Aritzaren Lagunak elkarteari *Sua* filmaren grabaketa egiteko. AIMAR MAIZ / GOIERRIKO HITZA

## IÑIGO TERRADILLOS

Eneko Aritzaren Lagunak Filmagintza elkarteak etenik gabe jarraitzen du bere azken proiektuarekin. Hala, Seguran izan ziren iragan larunbatean bertan egitekoa zen Erdi Aroko jaia baliatuz. *Sua* filmarako grabaketak egiten.

Seguran grabatzen duten bigarren aldia zen; izan ere, lehendabizikoa duela hilabete batzuk izan zen, eta orduan San Andresko ermitan filmatu zuten. «Gure filma inksizioan oinarritua dagoela jakinik, apaizaren sermoia grabatu genuen kasu hartan», azaldu dute filmeko arduradunek. Bigarren grabaketako protagonistetako bat «eguraldi kiskalgarria» izan zen, baina ez zuten eragotzi espero zuten lana egitea.

Eneko Aritzaren Lagunak Filmagintza elkarteak, beraz, «Segura ikusgarri apaindua» zegoela aprobetxatu zuten bertan grabatzeko. Ibarren egina zuten hitzordua bertara joateko; goizean goizetik lanean hasi, eta bazkalordura bitarte prestaketa lanak burutzeko:



Segurar ugarik hartu zuen parte filmaketan. AIMAR MAIZ / GOIERRIKO HITZA

erabili beharreko eszenatokiak atondu, gidioak ikasi, aktore bakoitza non kokatu behar den erabaki... Bazkalostean, dena prest zuten filmatzeari ekiteko.

Filmeko arduradunek esker-erak eman nahi dizkiete bereziki Erdi Aroko jaieko antolatzaile lanetan ibili den Rafa Berasategiri, eskaintako laguntzatik, eta baita grabaketan parte hartu zuten hogeitasei segurarrei ere; «pazientzia ederra erakutsi zuten, eta ez genituen estra gehiago erabili, jendea gure zain ez egotearen, nahikoa lan baitzuten herria dotore jaritzen». Halaber, aipamen berezia egin nahi diete soldadu paperean «bikain» sartu ziren aktoreei, «hurrengorako ere prest agertu baitira».

### Abuztuan atsedendaldia

Filma «nahiko luzetxo» jotzen ari zaienez, irailera arte ez grabatzea erabaki dute arduradunek. Oporren bueltan, ordea, adi egoteko eskatzen diete parte hartu nahi dutenei, «batean nahiz bestean lanean jarraituko baitugu orain arte bezala».

GAZTELU ▶

## 'Ni arratoi' antzezlanaren bihar herriko elkarteak

Uli Mankomunitateak, bihar, 18:00etan, herriko elkarteak, txotxongilo emanaldia antolatuko du. Behibis taldearen *Ni arratoi* antzezlanaren izango da, hain zuzen, ikusgai. Kaleko arratoi baten abenturak kontatzen ditu antzezlanak; bere auzoko lehen arratoi-maskota bihurtuko da, eta bizilagun izango ditu emakume bat eta Kuki txakurra.

IBARRA ▶

## Herriko jaietako zozketako zenbakiak salgai

Urtero bezala, salgai daude Danon Txokoan, Txumitxan, Arkaitz-Azpin, Atarin, Sendi Ekintzan, Guraso elkarteak eta Zubiaurren San Bartolome jaietako zozketako zenbakiak. Abuztua bitarte 3 zenbaki euro baten truke eskuartzeko aukera izango da aipaturiko tabernetan. Eskuratzeko den diruaren zati bat sarietarako izaten da, eta beste zati bat, berriz, proiektu bati laguntzeko bideratzea erabaki zuten. Aurtengoan, Sahara Bizi, Tolosaldea Sahaarekin elkartearantzat izango da sarietatik soberan geratzen den diru hori.

BERASTEGI ▶

## Podologoaren bisita, etzi, Gaztainondon

Etzi izango da Berastegiko Gaztainondo jubilatuen elkartearen podologoaren bisita eguna. Izena eman nahi dutenek 943 68 32 64 edota 943 68 32 02 zenbakietara hots egin ahal izango dute, edo bestela, elkartearen bertan egin beharko da izen-ematea, 16:30etik 19:30era.

BERASTEGI ▶

## Patinaje ikastaroa gaur, ludoteka eta gero

Hilaren 28ra bitarte ludoteka zerbitzua izango da egunero, 15:30etik 17:30era. Halaber, asteartean eta ostegunetan, ludotekaren ondoren patinaje ikastaroa egiteko aukera ere izango dute herriko gaztetxoak.

## iragarki laburrak ▶

### LAN HEZKUNTZA

**Osakidetza.** Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 31 37 82.  
**Diputazioak.** Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta

zaintzaileak behar ditu.

943 31 37 82.

**Laborategi teknikariak.** Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 31 37 82.

**Liburutegi laguntzaileak** behar dira zenbait udalxebetan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.**

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorlaluze,

Mutriku, Zuzurkil, Mendaro...

udalxebetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 31 37 82.

**Peoiak,** garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitetz: 943 31 37 82.

**Haur zaintzaileak,** hezitzaileak.

Escola publikoetarako plaza libreak.

943 31 37 82.

**Peoiak.** Udalxebetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 31 37 82.

**Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 31 37 82.

ARESO ▶ HEZKUNTZA

# Datorren ikasturtean eskolan irakasle bat gutxiago izanen dute

Halaxe baieztatu du azkenik Nafarroako Gobernuak; maila guztietako ikasleak bi geletan banatzea eraginen du horrek

JAIONE ASTIBIA

Aresoko eskolan 2006-07 ikasturterako irakasle bat gutxiago izanen dutela adierazi du Nafarroako Gobernuak. Halaxe baieztatu omen dio erakundeak eskolari, «hil honetan —uztailean oportetan daude eskolatan— horra bidalitako eskutitzez», TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI jakinarazi diotenez.

Azkenik, beraz, baieztatu da, oporraldia hasi aurretik Aresoko eskolan zalantzarikoa zen hirugarren irakaslearen afera.



Aresoko ikasle batzuk errekreo garaian jostaketan. J. ASTIBIA

Orain arte hiru irakasle eta ondorioz hiru gelatan banatuta bazituzten bertako ikasleak, Haur Hezkuntzan bat, eta Lehen Hezkuntzan bi, lanegun osoko irakasle batekin; heldu den ikasturtean «bi irakasle izanen ditugu, Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako bana. Lanegun erdiko irakaslea kendu egin dute erabatean», adierazi dute eskolako arduradunek oso kezkatuta.

Gainera eskutitz berean jakin dutenaren arioren ere, «ingelerako espezialistari jarri

dizkiote 13 ordu, nonbait bere gaieko saioak eman (9-10 saio izaten ditu astean) eta soberan duen denbora 'eskolako beharretara bidera' dezan», zehaztu dute.

## Eskolaren kalterako

Hori ere «galera ikaragarria» dela iritzi diote eskolan: «Bi irakasle eta erdierekin, hiru gela osatuta zeuden eta ingelerakoa kanpotik etortzen zen eskolak ematera. Orain ezin daiteke horrela egin, ingelerakoa bera delako osagarri modura izendatu dutena; batean eta bestean ibili behar duelarik, ezin da gela baten jabe egin eta ondorioz bi talde bakarra egin daitezke», arrazoitu dute.

Erabaki hauek «eskolako funtzionamenduaren kalterako» izanen direla uste dute; izan ere, irakasle faltaz, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak, 1. go mailatik hasi eta 6.era artekoak, denak gela berean ikasi beharko dutelako heldu den ikasturtean. «Kalitatea lortu nahi bada, nola nahi dute egitea, baldintzak eta baliabideak

murrizten badituzte?», galdegiten dute.

## Ikuskaritzan zaputz

Erabakiak erabatekoak izan baino lehen, horien inguruan Nafarroako Gobernuko arduradunekin hitz egiten saiatu zirela eman dute aditzera, bestealde. Eskolakoez gain, Udaleko arduradunek eta gurasoek osatutako sei laguneko ordezkariak bertara joan omen zen ekainaren 29an, bestela informazioerik lortzen ez zutela ikusita.

Horren harira, «harremanak postaz bakarra izan ditugu, telefonoz hitz egiten saiatu arren ez dugu sekula lortu», salatu nahi izan dute, bide batez: «Hara joan behar genuela esateko ere, mezua uztea besterik ez genuen lortu», argitu dute.

Han («oso gaizki») hartu omen zituzten: «Ez zen gutxieneko elkarriketarik ere sortu, ikuskarriak lekukoak eskatu zituen gure aurrean hitz egiteko», zioten horren adierazgarri. «Eta papera bidalita zegoela esateko», bukatu zuten.

LEITZA ▶ KIROLAK

## Triatloiko Espainiako Txapelketan parte hartu du Julen Sagastibeltzak

Nafarroako selekzioarekin joan da leitzarra, kadeteen mailan, bera kide bakarra izanik

J. ASTIBIA

Julen Sagastibeltza leitzar gazteak Autonomietako Selektzioen Espainiako Triatloi Txapelketan parte hartu du asteburu honetan, Tres Cantosen (Espainia). Kadeteen mailan aritu da gaztea eta, gainera, berak bakarrik osatu zuen maila horretako Nafarroako selektzioa; parte hartu zuten gainerako 10

selektzioak, gutxienez hiru kidez osatutakoak ziren. Horrexegatik, «meritu handikotzat jo zuten han bakarrik joan izana bera», azaldu diote HITZARI.

Madriren, 16:30ean, 36 graduko temperaturarekin, hantxe lehiatu zen leitzar gaztea triatloieko hiru probetan. Igeriketa probarekin hasi ziren, herri hartako laku artifizial batean, hari bi itzuli emanez, 750 metro



Sagastibeltza beste kirolari batzuekin. HITZA

igeri eginez; 11 minutu eta segundu batean egin zituen metro horiek (13. lekuan). Jarraian, txirinduz, karrerakoe-takoaz, 20 kilometro luzeko ibilbidea egiteari ekin zion; 41 minutu eta 15 segundo behar izan zituen Sagastibeltzak (34. lekuan bukatu zuen proba

hau). Ordurako 52 minutu eta 16 segundo zeramatzen egina-halaren eginahalez, azken saioari ekin aurretik: 5 kilometro lasterka —esate baterako, Leitzako krosean egin beharreko ibilbidea adina—. 26. egin zuen, 25 minutu eta 44 segundoko denborarekin.

Guztira, beraz, zehatz-mehatz, ordubete eta 18 minututan bukatu zituen hiru probak leitzar triatleta gazteak. Banakako sailkapenean, 49 parte-hartzailetatik 29. sailkatu zen.

Selektzioen sailkapenean, berriz, kadeteen mailan Nafarroako selektzioan kide bakarra izanik, ez zuen talde modura sailkapenik jasotzerik izan.

Edozein moduz, bera («oso gustura») omen zegoen parte hartu eta «denbora ere, ona egin zuelako»: «Halako beroarekin hiru probak bata bestearen atzetik atsedenek hartu gabe egin beharrak... 9 lagun erretiratu egin ziren, ezin zezaketelako», azaldu dute.

Atzo berean, ordea, asteburu honetan Barañainen eginen duten triatloiroako prestatzera joan zen.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 20a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

24

hotzena

21

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Aliza, Altza, Arretxola, Anostu, Anso, Aizoa, Balmoran, Belanduz, Berastegi, Berrovi, Ekain, Gortzi, Irujo, Irujogeta, Irujo, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orosa, Tolosa, Villabona, Zuzaitz

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilitza. Kultura Saila



## AGENDA ▶

### ANTZERKIA

**Gaztelu.** Ni arratoi txoxngilo emanaldia. Bihar, 18:00etan, Herriko Elkartean. Uli Mankomunitateak antolatuta.

### DEIALDIK

**Altzo.** Zikiri jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai Arandia jatetxean, 18 eurotan.

**Bidegoian.** Suak kaltetutako Eztiola baserrikoei laguntzeko jaialdia antolatu dute hilaren 29an: herri kirolak, bertsolariak, afaria... Afarira joateko txartelak salgai egongo dira bihar arte. 1989. urtetik beherakoek 25 eurotan, eta beste guztiek 15 eurotan.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara. **Tolosa.** Andorrara irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Oargi elkarteak Picos de Europa mendira irteera antolatu du hilaren 22tik 25era. Interesatuak 637 83 03 80ra deitu.

**Tolosa.** Iturritza jubilatutako elkarteak Bizkaiko kostaldera irteera antolatu du abuztuaren 3rako 25 eurotan (27 eurotan bazkide ez direnek). Izen-ematea, elkartean (Euskal Herria plaza).

**Tolosa.** La Jara elkarteak irteera antolatu du Pilarikako zubirako (urria) Extremadurako hainbat leku



## Bide Ertzean eta Coti elkarrekin, urteurrenean

**TOLOSA** ▶ Tolosako Bide Ertzean taldeak (goian) eta Coti abeslari argentinarrek elkarrekin joko dute 750. urteurreneko ospakizunetan. Irailaren 9an, larunbata, zezen-plazan ariko dira zuzenean. Sarrerak eros daitezke dagoeneko Servikutxan, www.ku-txa.net helbidean eta 943 00 12 00an. I. E. / HITZA

### AGURRAK ▶



#### URTE ASKOAN

Ane Zelaia eta Jose Luis Zelaia (Belauntza). Zorionak bioi, ebekoan partetik.



bisitatzeko. Alojamentua 3 izarretako hoteletan. Prezioa: 195 euro. Informazio gehiago eta izen-ematea 675 70 76 19 telefono zenbakian.

**Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkarteak Fuengirolara hamabost eguneko irteera antolatu du irailerako. Mantenu osoa 510 eurotan (516 bazkide ez direnek). Izen-ematea, elkartean (Emeterio Arrese).

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.

**Hernalde.** Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan ikusgai.

**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.

**Tolosa.** Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.

**Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112. **Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

### IRRATIA

#### Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarriketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*

22:00-23:00. *Gau bero.*

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian

